

Nork: [urko etxebeste](#) -Aza 18, 2016

JUAN CARLOS RUBIO: "EZAGUTZEN EZ DENARI BELDURRAZ ARI DA 'ARIZONA'"

Errefuxiatuak, migranteak, mugak, itxaropena eta indarkeria. Horiek dira 'Arizona' antzerkiaren oinarriak. Bihar Lezon ikus daiteke.



Juan Carlos Rubio. Argazkia: Sergio Parra.

Goi mailako antzerkia bihar Lezoko Gezala Auditoriumean, Histrión taldearen eskutik. Juan Carlos Rubiok kordobarrak 2005ean idatzi zuen *Arizona* lana, Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) estatu horretako mugan zegoen gatazkaz arduratuta: mugaren Mexikoko aldetik zetozenak kanporatzeko herritarren patruila armatuak sortu zituzten. Juan Carlos Rubio gidogile eta zuzendariak eman dizkio lanaren gaineko xehetasunak HITZAri.

Arizona mugak zaintzeari buruzko antzerki lana da, mugetatik haraino etor daitekeenaren beldurraz ari da. Baina zein da beldur horren arrazoia?

Ezagutzen ez denari beldurraz ari da *Arizona*. Galdera asko planteatzen dira lanean, dogmak zalantzan jartzen dira, eta adierazi nahi dena da arrazonamendurik gabeko sinesmenek ez dutela ezertarako balio. *Arizona*-k planteatzen duena da ezagutu nahi ez dugunaren gaineko beldurra izaten dugula. Mexiko eta AEBko Arizona estatuko muga da lanaren oinarria, muga fisikoa baino, burukoa. Eta horren inguruan sortu den indarkeriaz eta zentzugabekeriak mintzo da.

Lanaren bi protagonistak, George eta Margaret, irmo hasten dira euren lurraldea defendatzen kanpokoan kontra. Baina Margaret zalantzak izaten hasten da...

Margaretek sentitzen duena gizaki guztiok sentitzen dugu. Gure bizitzako une askotan gauzak zalantzan jar ditzakegu, edo galde diezaiokegu gure buruari ea zertan ari garen: hori sentitzen du Margaretek. Galdetzen hasten da Mexikotik datorrena nor den, zergatik jauzi egin nahi duen AEBetara, zerk eraman duen bidai hori egitera. Margaret niretzat itxaropenaren irudia da, mundu hobe eta justuago baten esperantzaren irudia.

2005ean idatzi zenuen Arizona. Baina bertan esaten direnek zentzu osoa dute egun, AEBtan eta Europan. *Arizona* izena du lanak, baina Mediterraneoan eta Europan gertatzen ari dena antzekoa da. Izugarria da hori guztia. Gainera, orain, Donald Trump-en etorrerarekin uste dut indar handiagoa hartu duela *Arizona*-n esan nahi denak.

Ikuskizuna gogorra, baina beharrezkoa dela esan duzu.

Beharrezkoa da konturatzea egunero telebistan ikusten ditugun errefuxiatuen irudi horiek konpontzea denon ardura dela. Kontzientzia hori piztu nahi du lanak, eta antzerkiak uste dut horretarako ere balio behar duela, kontzientziak astintzeko, eta noski, entrenitzeko.



AZKEN TXANPA HARTUKO DU GAUR IKUSKAK

LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



'Valium bada' antzezlana ez d ...
Nork: [erik gartzia](#) - Aza 18, 2016
Kultura



Barreterapiarako lau aukera
Nork: [olatz mitxelena](#) - Urr 21, 2016
Kultura



Ipuinak kontatuz liburutegiak ospatu
Nork: [olatz mitxelena](#) - Urr 19, 2016
Kultura



Tristeziaren kontrako zortzi pilula sei ...
Nork: [olatz mitxelena](#) - Urr 14, 2016
Kultura

Albiste irakurrienak



[GALERIA] AURPEGI ALAIK NAGUSI LASTERKETAREN 12. KILOMETROAN

Fitxa

Non eta noiz. Bihar (larunbata), 20:00etan Lezoko Gezala Auditoriumean. Zortzi euro. Gazteleraz da **Partaideak.** Zuzendaria eta gidoilaria: Juan Carlos Rubio; Aktoreak: Histrión Teatro konpainiako Gema Matarranz eta David Garcia-Intriago.

ANTZERKIA ARIZONA JUAN CARLOS RUBIO



[GALERIA] BEHOBIA-DONOSTIA
LASTERKETAKO PARTE HARTZAILEAK,
DONOSTIARA IRISTEN



URKO ETXEBESTE

Ez dago ekarpenik

EGIN IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website



CAPTCHA Code *

BIDALI IRUZKINA

[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)

© Oartzualdeko Hedabideak S.L. • Santa Klara kalea, 22, Errenteria-Orereta 20100 - Tel.: 943-34 03 30 - E-posta: oarsobidasoa@hitza.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia



Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU CREATIVE COMMONS ERABILERA LIZENTZIAREKIN.